

Lezoko udal liburutegiak euskarazko olerki eta ipuin lehiaketak antolatu ditu

XIII. Jon Garbizu eta Lope Isastikoa sarietara aurkezteko epea azaroaren 24an amaituko da

Lezo. Andreone udal liburutegiak Lezon irakurzaletasuna susper-tzeko programaren baitan bi lehiaketa antolatu ditu, Jon Garbizu olerki eta Lope Isastikoa ipuin sariak. Biak hamairugarren aldiz iragarri dira. Idazlanak euskaraz idatzitako olerkiak (hitz jokoak barne) edo ipuinak izango dira, gai librekoak, inoiz argitaratu gabeak eta gehienez hiru orrikoak.

Parte-hartzaileek lezoarrak edo liburutegiko bazkideak izan behar dute eta lau maila bereiziko dira: sei eta zazpi urtekoak, zortzi eta bederatzi urtekoak, hamar eta hamaika urtekoak eta hamabi, hamahiru eta hamalau urtekoak.

Idazlanak azaroaren 20tik 24ra aurkeztu behar dira Andreonen eta sariak bertan banatuko dira abenduaren 15ean, 19.00etan. Lehiaketako eta maila bakoitzeko irabazleek liburuak erosteko 100 euroko balea eskuratuko dute. Obrak aurkezterakoan, lanari gutun-azal bat grapaz josiko diote. Gutun-azalaren kanpoko aldean lanaren izenburua eta egilearen adina azalduko dira eta barruan helbidea, telefonoa eta izen-abizenak. Lan bakoitzeko gutunazal bat aurkeztuko da. Orrietan edo gutunean ikastetxearen izena dakarren obrarik ez da onartuko. >a.m.